

Bad f-Line

Azken aldian Euskal Herrian ikustera ohituta ez gauden kontzeptu berri bat lantzen duten bi proposamen sortu dira: Mikel Anestesiak bultzaturiko 2 Kate eta Arrasateko Bad f-Line. Azken horrek jada kalean du lehen lana, bost kantuz osaturiko konpaktua, «inor ez aspertzeko». Izan ere, ez da erraz entzuten den diskoa, 18 minutu besterik ez diren arren Bad f-Linek doinu erradikalak aurkezten baititu hasierako honetan.



Taldearen ideia 1996ko udan sortu zuten Iñakik (programazioa, erritmoak, laginak eta moldaketak) eta Txemak (ahotsa, baxua, sintetizadoreak eta moldaketak). Argi zuten zer egin nahi zuten baina jendea falta zitzaien, eta bi muturretan dauden musikariak bildu zituzten Arrasaten bertan. Brutal Melody trash taldeko Pako (gitarrak), eta musika klasikoko taldetan aritutako Rakel (ahotsa eta sintetizadoreak). Maketa bat atera ondoren, Shot! estudiotan grabatu dute konpaktua — Iñaki jabeetako bat da — eta Oñ zigituarekin kaleratu. Iñakirekin solastu ginen.

■ Zergatik mini-CD bat eta ez disko oso bat?

Egitan, disko bat da. Kontua da ez genuela 20 minututik gorako disko bat atera nahi, gu geu ere aspertzeko baikara 40 minutu irauten duten estilo horretako diskoekin, ez ditugu osorik entzuten. Maxiak nahiago ditugu. Orduan, ez genuen besteek egiten dutena egin nahi. Hurrengo diskoak ere 5-6 abestikoak izango dira.

■ Techno, dance, musika industrial... zer egiten du Bad f-Linek?

Gustuko ditugun taldeak musika industrialekoak dira, baina gu oraindik ez gara maila horretara iristen. Ez dut uste zuzena denik esatea musika industrialeko talde bat garela. Batez ere, taldearen soinua eragatik. Musika industrialaren soinua oso be-

rezia da: gitarrak, ahots oso landuak... Lehen urrats honetan ez gara iristen hori egitera, agian hurrengoetan bai...

■ Disko zaila da, ez da batera dantzagarria.

Ez, saiatu gara dantza egiten eta ezin da. Zaila dela diozu? Ez dakit, arriskatu behar da. Agian hurrengo errazagoa egin behar dugu, baina dena den abesti batzuetan melodia gehiegi dago.

■ Txemaren ahotsa, nagusia, oso distortsionatuta dago, ez da ezer ulertzen.

Musika honen ezaugarrietako

bat da. Ahotsak joan behar du askoz baxuago, oso distortsionatua eta entzuteko gogorra, ez daitezen ondo ulertu hitzak. Euskal Herriko talde gehienek oso ahots argia dute, politegia, reverb askorekin. Guri ez zaigu hori gustatzen. Bestalde, pena ematen digu hitzak ondo ez ulertzeak, asko kostatzen baitzaigu egitea.

■ Rakelen leloak, ordea, oso argi entzuten dira.

Aldaketa hori islatu nahi ge-

nuen, Txemaren ahots gogorraren eta Rakelen ahots goxoaren arteko kontrastea. Rakel nolabait roilo onaren neska da, dena ondo doala adierazten duena.

■ Filmetako elkarrizketak eta beste diskotako zatitxoak lapurtzen dituzue abestiak egiterakoan, baina oso zaila dago antzematea. Zeintzuk daude disko honetan?

Askok. Badira Akira, Brazil eta Blade Runner filmetako elkarrizketak, Bill Clintonen hitzaldi

bat. Musikarien artean, Gene Kelly, Ministry, Beck, El Desván del Macho, Lin Ton Taun, Brutal Melody, Ruper Ordorika, James Brownen erritmo oso bat... Abesti bakoitzak 60-70 sanpler ditu, pentsa, baina ezinezkoa da harrapatzea. Normalean, pandero bat sartu nahi badugu, adibidez, esaten dugu: 'zeinek du pandero guay bat? Lin Ton Taun'. Eta sartzen dugu.

■ Panero eta William Burroughsen hitzak ere erabiltzen dituzue.

Paneroen lagunak gara, eta berari esker ezagutu dugu Burroughs, baina ez dizkigu abesti baterako hitzak egin nahi izan, zaratsuegiak gara berarentzat.

■ Jendeak pentsa lezake Prodigyren ildo berekoak zaretela.

Bai, baina ez zaigu asko gustatzen. Abesti batzuk bai; baina talde edo ideia bezala, ez dit asko esaten. Talde zikinagoak gustatzen zaizkigu.

■ Zuen estilora hurbiltzen den talderik apenas dagoen Euskal Herrian. Bakarra 2 Kate da. Zer deritzozu 2 Kateri?

Euskadin gehien interesatzen zaidan taldea da. Bad f-Linerekin antza izan dezakeen talde bakarra da, nahiz eta ezberdintasun nabarmenak dauden bion artean. Talde gisa, ideia jeniala iruditzen zait: Mikelen gitarra, nesken roiloa... Mikel eta biok oso lagunak gara, gustu musikal berberak ditugu, baina 2 Katek gehiago jotzen du trash aldera, gitarra ezberdina dira.

■ Zer harrera espero duzu?

Ez dut itxaropen handirik, baina estilo hau hor dagoela konturatu behar du jendeak. Agian hemendik aurrera jendea hasiko da musika hau entzuten. Nork uste zuen Prodigy hainbeste disko salduko zituela?

jon eskisabel

«Musika industrial hor dagoela jabetu behar du jendeak»

Doinu erradikalak

- **Clave de acceso:** «Egin genuen lehena da. Ordenadore batek gizaki bati komentatzen diona islatzen du. Ideia laburbiltzen duen esaldia *Blade Runner* filmetik aterata dago: *tu posibilidad es mi realidad*, alegia, zuk egin dezakezu nik nahi dudana. Bitxikeria gisa, bateriaren erritmoa Gene Kellyren klake urrats batzuk dira. Bukieran soilik entzuten dira garbi, baina abesti osoan daude».
- **Hombre de metal:** «Boterea duen edozein pertsonari buruzko hitzak dira. Bill Clintonen hitzalditxo bat agertzen da abestian. Ildo orokorretik ateratzen den abesti bakarra da; errazagoa da entzuteko, Txemaren ahotsak ez du distorsiorik. Jendeari gehien gustatzen zaion abestia da, baina ez da nire kasua».
- **Conexión:** «Gustuen geratu garen abestia da. Hitza Markinako arrasatear bati buruzkoa da, euskal mundu kooperatibista sortu zuena: Jose Maria Arizmendiari zena. Arrasateko jende guztiak mirespena dio, On Jose Maria deitzen diote, baina guretzat komiki pertsonaia da. Arrasaten gai tabu bat da, inork ezin du kritikatu lanpostu asko sortu dituelako. Abesti horrekin egon da arazo txoren bat. Batzuetan, pixka bat erradikalak gara».
- **Salmo:** «Jesucristoren esaldiekin egina dago hitza, eta leloak horren kontura egiten du barre. Leloa Rakelek atera zuen, asko gustatzen baitzaio musika gregorianoa. Musika aldetik, Ministryrekin antz handiena duen kantua da».
- **Hermano perdurabo:** «Hitza XIX. mendeko Eskoziako pertsonaia batenak dira: A. Crowley. Haren bigrafia irakurri nuen eta inpresionatu ninduen nola izan zitekeen hain satanikoa. Erritmoak antza du Alemaniako KMFDM taldearekin».